

19/2021 FORU AGINDUA, otsailaren 17koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, zeinaren bidez hasten baita irakasleek frogatu ditzaketen berariazko eskakizunak zehaztu eta horiek egiaztatzeko prozedura ezartzen duen foru agindu bat egiteko prozedura

Martxoaren 11ko 32/2013 Foru Aginduaren bidez zehazten da zein diren irakasleek frogatu ditzaketen berariazko eskakizunak eta ezartzen da horiek egiaztatzeko prozedura (2013ko martxoaren 26ko NAO).

Foru Agindu hori indarrean sartu zenetik, horren babesean aurkeztutako eskabideen izapidetzeak agerian utzi du, batetik, badela prozedura arinago bat ezartzeko aukera, bat letorkeena irakasleen kidegoetako lanpostuen horniduraren arloan gaur egun indarrean dagoen araudiarekin, eta, bestetik, I. eranskina aldatzeko beharra dagoela, eskakizunak berrikusteko eta horiek egiaztatzeko eskatzen diren titulazioak eguneratzeko.

Hori guztia Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133. artikuluan xedatutakoarekin bat.

**AGINTZEN DUT:**

1.- Hasiera ematea irakasleek frogatu ditzaketen berariazko eskakizunak zehaztu eta horiek egiaztatzeko prozedura ezartzen duen foru agindu bat egiteko prozedurari.

2.- Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusia izendatzea hura prestatu eta izapidetzeko ardura duen organo.

3.- Foru agindu hau igortzea Hezkuntza Zuzendaritza Nagusira, Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusira eta Idazkaritza Tekniko Nagusira, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, bi mila eta hogeita bateko otsailaren hamazazpian.

HEZKUNTZAKO KONTSEILARIA

Carlos Gimeno Gurpegui